



MUKUSULUBA HLHI

2016 - 2017

Ikastetxeko Urteko Plana



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537
muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



AURKIBIDEA

1. SARRERA.JUSTIFIKAZIOA
2. HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN PLANIFIKAZIOA
3. IRAKAS-JARDUEREN PROGRAMA
 - 3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak
 - 3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak
 3. 1. 2. Esperientziak, programak eta proiektuak
 3. 1. 3. Prestakuntza eta garapen profesionala
 - 3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa
4. ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMA
5. ESKOLAKO ZERBITZUAK
6. EKONOMIA-KUDEAKETARAKO PLANA
7. HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIOA HELARAZTEKO PLANA
8. IUPren GARAPENAREN ETA IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN JARRAIPENA
9. ERANSKINAK
 - 9.1. OOGren onartze agiria
 - 9.2. Aniztasunari arreta emateko Plana
 - 9.3. Biblioteka proiektua



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537
muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



SARRERA - JUSTIFIKAZIOA

Mukusuluba LHI Barakaldoko D eredu ikastetxea da. Bertan aritzen gara lanean 37 irakasle inguru, 2 atezain, 24 jantokikoak eta 4 garbitzaile. Irakasleok ikastetxearekin eta inguruarekin inplikatzeko konpromisoa hartu genuen aspaldi. Gure arteko egonkortasunak errazten du neurri handian helburu hori lortzea. Gure estiloa eta gure baloreak parte-hartzea, adostasuna lortzea, elkarrizketa eta eztabaida bideratzea, ikasle osoak garatzea, errespetua, euskara bultzatzea, inklusioa, teknologia berriak lantzea eta lanaren eta emaitzen inguruko etengabeko hausnarketa bultzatzea dira, besteak beste.

Ikasturteko Urteko Plana egiteko ikastetxearen egungo egoera izan dugu kontuan, iazko urteko memoria eta abian dauzkagun proiektuak. Ebaluazio diagnostikoaren ondorioz, Hobekuntza Plana egin zen.

Irakasleok planaren zatirik handiena erabaki dugu, eta gainerako estamentuei euren proposamen eta ekarpenak egiteko eskatu zaie. Plangintza egiteko modu hau bat dator zuzendaritza proiektuan jarritako lehenengo helburuarekin, hots, "Ikastetxeko partaide guztiak bertako parte garrantzitsu eta oinarrizko sentiaraztea. Jakin dezatela ekarpen guztiak aintzat hartuko zaizkiela eta edozein berripen puntualki jakinaraziko zaiela".

Beraz, eta laburbilduz, helburu orokorrak iturri desberdinetatik hartuta daude:

- Gurasoek proposatutakoak (OOG, Guraso elkarteak)
- Eskolako proiektuetatik hartutakoak: NOLEGA, elkarbizitza, Agenda 21...
- Zuzendaritza proiektutik hartutakoak.

Helburu batzuk dokumentu edota iturburu bat baino gehiagori dagokie, beste batzuk, berriz, bakarrari.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.

Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA

Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



HELBURU OROKORRAK	
ITURBURUA	HELBURUA
1.- 2015-2016 ikasturteko memoria	* Hobekuntza Plana gauzatzea.
2.- Batzorde pedagogikoa	* Hizkuntza Proiektua egitea.
3.- OOG	* Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua onartzea.
4.- Elkarbizitza Plana	* Ikasle laguntzailea eta bitartekaritza programak ezagutzea.
5.- Normalkuntza proiektua	* Normalkuntza inguruko jarduerak hobekuntza planarekin lotu, Hizkuntza Proiektuarekin lotuta.
6.- Agenda 21	* Barakaldoko gainerako eskola eta udaletxearekin batera klima aldaketa gaia jorratzea.
7.- Guraso Elkartea	* Elkartearekin elkarlana sakontzea. * 50. Urteurrena prestatzea.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.

Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA

Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	DENBORA	EBALUAZIO Adierazleak
* Hobekuntza Plana gauzatzea.	- Tutoretza eta diziiplina taldean arauak eta jarduera desberdinak bideratu. - Hizkuntza Proiektua bideratzen duen taldea sortu. - PBL formakuntza (BerritzePrest)	Ikasketa burua Irakasle guztiak	Berritzeguneko materiala. Beste ikastetxe batzuetako esperientziak.	Ikasturtean zehar	
* Hizkuntza Proiektua egitea.	- Gidako atalak jorratu. - San Martineko esperientzia partekatu.	Hizkuntza proiekturako batzordea.	Bergarako San Martin ikastetxeko materiala. "Partekatuz ikasi" esperientzia. EJko gida.	Ikasturte osoan zehar eta hurrengoa.	Hizkuntza Proiektuaren lehenengo atalak aurrera eraman dira.
* Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua onartzea.	- Testua bateratzea. - Estamentu desberdinei aurkeztu, onartzeko.	Zuzendaritza taldea	Sortutako testua.	Bigarren hiruhilekoan.	IHP OOG-n onartu da.
* Ikasle laguntzailea eta bitartekaritza programak ezagutzea.	- Programak ezagutu. - Beste ikastetxe batzuen esperientzia ezagutu.	Tutoretza taldea. Irakasleak	Berritzeguneko materiala, Bakeola, beste ikastetxe batzuk...	Urte osoan zehar.	Talderen batean esperientzia probatu da.
* Normalkuntza inguruko jarduerak hobekuntza planarekin lotu, Hizkuntza Proiektuarekin lotu, plana	- Berritzeguneko mintegia. - Formakuntza irakasleekin. - Jarduera puntualak	Nolega batzordea	Berritzeguneko materiala Formakuntzako materiala	Ikasturtean zehar	Saioteko aktak

2016/17



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.

Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA

Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>



HELBURU OROKORRAK ETA JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	DENBORA	EBALUAZIO Adierazleak
* Barakaldoko gainerako eskola eta udaletxearekin batera klima aldaketa gaia jorratzea.	- Hileko bileretara joan. - Gaia lantzeko jarduerak proposatu. - Brigada zuria sortu.	Agenda 21eko arduraduna eta batzordea.	Udal taldeko eta CEIDAKo aholkularitza.	Ikasturte osoan zehar	Bileretako aktak Amaierako ebaluazioa
* Elkartearen eta ikastetxearen arteko elkarlanean sakontzea. * 50. Urteurrena prestatzea.	- Guraso elkartean sortutako batzorde desberdinekin ekintzak adostu. - 50. Urteurrena ospatu.	IGEko arduradunak eta zuzendaritza		Ikasturte osoan zehar	- Ekintza berriak gauzatu dira. - Urteurrena ospatu da.

IRAKAS-JARDUEREN PROGRAMA

3. 1. OHIKO IRAKASKUNTZA-JARDUERAK

3. 1. 1 ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ASPEKTUAK

IRAKASLEEN EGINBEHARREN ESLEIPENERAKO ETA TUTORETZEN BANAKETARAKO IRIZPIDEAK

Tutoretzak banatzerakoan lehenengo irizpidea da irakasleak zikloa jarraitzea. Hori eginda, ziklo hasierako taldeak aukeratzen dira antzinatasunaren arabera. Hala ere, irakasleok edo zuzendaritzatik proposamen zehatzak ere egiten dira, egonkortasuna bilatzeko.

Gainerako kargu eta eginbeharretarako ez dago irizpide zehatzik. Bilatzen dugu egonkortasuna, egokitasuna, gaiaren inguruko ezagumendua eta ordutegietan moldatzeko erraztasuna. Horrela aukeratu dira proiektuetako arduradunak eta koordinatzaileak.

1 - TUTORETZEN BANAKETA

HAUR HEZKUNTZA	2 URTE	Sokoa González M ^a Carmen Gonzalo	Ana Gutiérrez Tere Laka	Iratxe Olibares /Saioa Brea Silvia Indias
	3 URTE	Maite Larruzea	Ainhoa Niño	
	4 URTE	Marian Calzada	Marian Alicante	
	5 URTE	Susana Diez	Marta Iglesias	
LEHEN HEZKUNTZA	1.	Leire Hernandez	Luzma Azkona	
	2.	Iker Gonzalo	Nekane Zorrilla	
	3.	Mertxe Gonzalez	Nagore Puente	
	4.	Conchi Rodriguez	Jose Luis Fernandez	
	5.	Maria Isasi	Naroa Gaintza	
	6.	Karmele Sánchez	Ricardo Arana	

2 - ESPEZIALISTAK

INGELESA	Irati Telleria	Diego de Isusi / Janire Polanco
G. HEZIKETA	Lucas Fernández	
MUSIKA	Ruth Sedeño	
AHOLKULARIA	Estefi Medja	
PT	Txelo Martin	Goizargi Bustos
HLE	M ^a Jesus Gonzalez	
ALE	Oiane Torrontegi	



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

3 - JANTOKI ARDURADUNA: Menchu Sánchez

4 - ATEZAINZA:

Begoña Bravo	M ^a Carmen Fernández
--------------	---------------------------------

5 - PERTSONA BAKARREKO KARGUAK:

ZUZENDARIA	Bego Iriondo
IKASKETA BURUA	Blanca Ribeira
IDAZKARIA	Lourdes Olaetxea

6 - ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA (EGA/KA): Lourdes Olaetxea

7 - TEKNOLOGIA BERRIEN ARDURADUNA (IKT): Jose Luis Fernandez

8 - ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ARDURADUNA: Mentxu Sánchez

9- BIBLIOTEKAKO ARDURADUNA: M^a Carmen López.

10 - ZIKLO-KOORDINATZAILEAK:

HAUR HEZKUNTZA	Tere Laka
LH 1. ZIKLOA	Diego De Isusi
LH 2. ZIKLOA	Ruth Sedeño
LH 3. ZIKLOA	Karmele Sanchez

11 - PROIEKTUEN ARDURADUNAK:

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA	Maitte Larruzea
AGENDA 21	Mertxe González
BIBLIOTEKA	M ^a Carmen López

12 - OOG

ZUZENDARIA	<i>Begoña Iriondo</i>
IKASKETA BURUA	<i>Blanca Ribeira</i>
IDAZKARIA	<i>Lourdes Olaetxea</i>
IRAKASLEAK	<i>GURASOAK</i>
Susana Díez	<i>Mónica García</i>
Estefania Medja	<i>David Díez</i>
Lukas Fernández	<i>Iraide Arrese</i>
Txelo Martin	<i>Aitor Zugasti</i>
Marian Calzada	<i>Igor Méndez</i>
Ruth Sedeño	<i>Susana Piñán</i>
Luzma Azkona	<i>Myriam Fontecha</i>



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

Ana Gutiérrez	<i>Ainhoa Romero</i>
Karmele Sánchez	<i>Lorena Cristóbal</i>
Conchi Rodríguez	<i>Rosa Asela Galán</i>
	<i>Marta De la Vega</i>
	<i>Leticia Gallardo</i>
	<i>Esti Fernández</i>
	<i>Estibaliz Rodríguez</i>
	<i>Astrid Pérez</i>
ZERBITZUAK	<i>M^a Carmen Fernández</i>
UDALETXEO ORDEZKARIA	<i>Raquel Olalla</i>

JARDUERA ESKLUSIBO SAIOEN ANTOLAKETA

Esklusiba orduak honela banatzen dira:

Astelehenak, ziklo bilera

Astearteak, mailako bilera. Ziklo bilera amaitu barik gelditzen bada asteartean amaitzen da.

Asteazkenean, formakuntza saioak

Ostegunean, gurasoekiko bilerak

Ostiralak, klaustroa, biltzeko deia egiten bada.

IKASLEAK TALDEKATZEKO IRIZPIDEAK

Ikasleak lehenengo aldiz eskolara sartzen direnean 2 urteko geletan talde heterogeneo eta orekatuak izateko honela egiten dira: neska-mutil kopurua, bikiak (gurasoen iritzia kontuan izaten dugu), jaiotze-data (hilabete guztietakoak), jantokian gelditzen diren ala ez, euskaldunak diren, izenak ez errepikatzea, HPBkoak diren, nebarrebak dituzten. Zerrendak 2 urteko tutoreak izango ez direnek egiten dituzte (zuzendaritza ala beste irakasleak)

Lehen Hezkuntzan ziklo bakoitza hastean ikasleak nahastu eta banatzen dira, talde orekatu eta heterogeneoak sortuz, ikasleen arteko ezagutza aberasteko eta geletan sortutako estereotipoak ezeztatzeko. Taldekatzeko berria aurreko urtean izandako tutoreek egiten dute espezialisten iritzia kontuan hartuta, eta umei galdeketa txiki bat egin ondoren (beraiekin egon nahi duzun bi ikaskideren izenak). Oinarrian bi irizpide hauen arabera egiten dira taldeak: ezagutza maila eta portaera maila. Egoera bereziak gertatzen badira arreta berezia jartzen da. Lehenengo aldiz sartzen direnak, berriak edo errepikatzaileak direlako, euren ezaugarriak kontuan hartuz, hobeto datorkien taldean jartzen dira. Ikasturtean zehar ikasleren bat heltzen bada, lehenengo irizpidea da ume kopurua berdintsua izatea, baina taldeak aztertzen dira, eta, egokiagoa bada, kopurutsuenean ere sar daiteke.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net http://www.mukusulubalhi.net

LAGUNTZA ETA INDARTZE NEURRIAK ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Zuzendaritzak, aholkulariarekin elkarlanean, antolatzen ditu laguntza eta indartze neurriak, eta Urteko Plan honi erantsita doan Aniztasunari Arreta emateko Planean islatzen dira. Aztertzen da HPBko zenbat ikasle dagoen taldean eta taldearen eskola emaitzak eta funtzionamendua.

3 urteko geletan irailean zehar sarrerak eta irteerak egiteko laguntza antolatzen da, eta 1. mailan ere tutoreen arteko indartze saioez gain, beste gutxi batzuk ezartzen dira.

ESPASIO KOMUNEN ANTOLAKETA ETA BANAKETARAKO IRIZPIDEAK

Espazio komunak dira gimnasioa, psikomotrizitate gela eta laborategia. Aurten, 2. mailako 3 talde ditugunez, informatika gela ingelesko gela da.

Psikomotrizitate gelako ordutegia HHko zikloak antolatzen du. Lehentasuna 3 urteko taldeek daukate, eta ziurtatzen da saio luzeak hartzen dituztela. Oreka bilatzen da saio luze (60') eta laburren (45') artean.

Laborategian lehentasuna tailerrei ematen zaie.

Tailarren ordutegia antolatuta, bikoizketak egiteko erabiltzen da. Ordutegien antolaketa batzorde pedagogikoak egiten du.

3. 1. 2 ESPERIENTZIAK, PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK

AGENDA 21: Ikasleen artean birziklatze-ohiturak eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzeko proiektua da. Barakaldoko gainerako eskolekin eta udaletxearekin batera egiten da. Aurtengo gaia "klima aldaketa" da.

HIZKUNTZAREN NORMALKUNTZARAKO PROIEKTUA: Irakasleen artean euskararen ezagutza sakontzea du helburu, eta bere erabilera ahalik eta zabalena izatea ikasleen artean eta ikastetxearen inguruan. Garrantzi berezia dute Euskegiñek eta bere jolasak eta eskola-irratia. Aurten, Hizkuntza Proiektua landuko da bereziki.

BIBLIOTEKA: irakasle bat dago bakarrik biblioteka antolatzeko eta mantentzeko bai eskola ordutegian bai eskolaz kanpokoan. Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Erantsita doa proiektua.

3. 1. 3 PRESTAKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALA

Proiektu horiek garatzeko eta irakasle on prestakuntzarako, Berritzeguneko zerbitzuak erabiltzen ditugu mintegi hauetan parte hartuz ordutegi barruan:

Zuzendarien eta ikasketa buruen mintegia: zuzendaria ostegunetan hilean behin.

PTEn mintegia: PTEK asteartetan hiru asterik behin.

Aholkularien mintegia: aholkularia ostegunetan hamabostean behin.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

Musikakoen mintegia: musikako irakaslea hilean behin.

Gorputz Heziketako mintegia.

Nolega mintegia: HNAT asteazkenetan hilean behin.

Agenda 21 mintegia: A 21 arduraduna asteazkenetan hilean behin.

IKT mintegia: asteazkenetan hilean behin.

Horretaz aparte, eskolan asteazkeneko formakuntza ordutegia daukagu: 13:00-15:00. Aurten jorratuko ditugun formakuntza-ekintzak dira:

- Euskararen ahozketasuna: Itziar Larzabal (HH).
- Tutoretza Plana.
- PBL Berritzegunearekin.
- Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua.
- Ahotsa zaintzea

Urtero bezala, azaroan Barakaldoko Pedagogi Jardunaldietan hartzen dugu parte irakasle batzuek. Lehenengo saioa ordutegi barruan eta beste bi ordutegiz kanpo. Aurtengo gaia "Proiektuen bidezko lana" izango da.

3. 2 IRAKASKUNTZA-JARDUERA OSAGARRIEN PROGRAMA

HAUR HEZKUNTZAKOAK:

Barakaldoko udalak antolatutak: Antzerkia (Barakaldo antzokia)
Zinea (Clara Campoamor)
Kontzertu didaktikoa (txistu)
Lorategi botanikoa

Irakasleek antolatutak: Olentzero (kalez kale)
Euskararen eguna
Agate Deuna (eskola barruan gelaz gela)
Inauteriak
Liburu Eguna
Aritz Soroa (5 urtekoak egun baterako)
Korrika
Emakumeen eguna / Genero indarkeriaren kontrakoa.
Ikasturte amaierako jaia
Ikasturte amaierako txangoa

LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOKOAK:

Barakaldoko udalak antolatutak: Antzerkia (Barakaldo antzokia)
Zinea (Clara Campoamor)
Kontzertu didaktikoa (Barakaldo antzokia)
Kontsumo tailerrak
Euskara piztuz

Irakasleek antolatutak: Olentzero (kalez kale)
Euskararen eguna

Ikastetxeko urteko plana 2016/17



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net http://www.mukusulubalhi.net

Inauteriak
Korrika
Liburu Eguna
Ikasturte amaierako jaia
Ikasturte amaierako txangoa

LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKOAK:

Barakaldoko udalak antolatutak:	Kontzertu didaktikoa Antzerkia Euskara piztuz Bide-hezkuntza. Kontsumo tailerrak Larrazabal basoa Hitz-truke, hitz-batu (irakurzaletasuna sustatzeko) Merkatu txikia (azoka solidarioa) Zinema Lorategi botanikoa
Irakasleek antolatutak:	Txirrindularitza Gorbeia Barakaldoko frontoia Euskararen eguna Inauteriak Korrika Liburu Eguna Ingelesko antzerkia Ikasturte amaierako jaia Ikasturte amaierako txangoa

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOKOAK:

Barakaldoko udalak antolatutak:	Barakaldo antzokia Zinema euskaraz Baso biziduna (A21ekin lotuta) Euskara Piztuz Ezagutu Barakaldo Bide hezkuntza Txistu kontzertua Bertsolaritza
Irakasleek antolatutak:	Museo etnografikoa /alde zaharra Arte Ederretako museoa Arkeologi museoa Zientzia museoa Madariaga Dorretxea Bilboko portura Inauteriak



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

Liburu Eguna
ABAO
Euskalduna jauregia
Txirrindularitza eskola
Ikasturte amaierako jaia

Gorputz-hezkuntzaren irakasgaiaren barruan, halaber, irteera batzuk egingo dira, ikastetxearen inguruan jarduerak egiteko: lorategi botanikoa, Anaien parkeko frontoia...

Aipatutako jardueraz gain, beste zenbait irteera ere egin daitezke, plangintza honetan zehaztu gabeak, eta ikasturtean zehar sortu daitezkeenak. Jarduera hauei guztiei buruz informazioa helaraziko zaie familiei.

3 - ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK:

Eskolaz kanpoko jarduerak eskola-ordutegitik kanpo egiten direnak dira, eta gaur egun haien helburua da, batez ere, eskola-ordutegia eta familien ordutegiak bateratzea, araututako heziketa osatu dezaketen arloak eskainiz.

Jarduerak Guraso Elkarteak antolatzen ditu, OOGko Eskolaz kanpoko batzordeak gainbegiratuta, eta beren finantziazio eta antolaketa propioa dute. Ikasturte honetan egingo direnak hauek dira:

- Futboltxoa (ostegunetan)
- Karate (astelehen, ostegun eta ostiraletan)
- Xakea (astearte eta asteazkenetan)
- Eskulanak ingelesez (astearte eta asteazkenetan)
- Malabareak (ostegunetan)
- Street-dance (asteazkenetan)
- Saskibaloia (astearte eta ostegunetan)
- Irristaketa (ostiraletan)
- Gimnasia erritmikoa (astearte eta ostegunetan)
- Lo-kuluxka. 2 urteko geletan (asteazkenetan)
- Bai ala bai (astelehen eta ostegunetan)
- Yoga (astearteetan)

ESKOLAKO ZERBITZUAK

GOIZEKO GELA:

Guraso Elkarteak kudeatzen du, eta zerbitzua finkatuta dago.

JANTOKIA:

Jantokia ikastetxeko zerbitzua da, kudeaketa zuzeneko, eta bertako funtzionamendu orokorrean sartuta dago. Bere garrantzia duenez, eskola-bizitzako ataltzat hartuko dugu bere arau eta ordutegiarekin (13:00 - 15:00).



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

Bere helburuak AJAn agertzen dira eta, oinarrian, espazio hezitzaile moduan kontsideratzen dugu.

HHko 2, 3 eta 4 urtekoek jantoki txikian bazkaltzen dute lehenengo txandan, ordu batetan, eta HH 5 urtekoek bigarren txandan. LHkoek jantoki handian 2 txandatan (13:00etan 1., 2. eta 3. mailak eta 14:00etan 4., 5., eta 6. mailak). Jantokian ez daudenean patioak, psikomotrizitate gela, gela arteko espazio batzuk (telebista ikusteko), gimnasioa, laborategia eta biblioteka erabiltzen dira solasaldirako.

Jantoki ordutegian, ikasleen kontrola eta zaintza areagotzeko, pasilloetako atearak itxita egongo dira. Monitoreek leku gatazkatsuenak zainduko dituzte etengabe (komunak, zelaia, zirrikituak...), eta, horretarako, ezarritako txandak beteko dituzte.

Zaintza eta elkarbizitza arauak eta prozedurak lantzen jarraituko dugu. Aurten, ikasle batzordeak sortzen ikasiko dugu.

BIBLIOTEKA:

Eskolan badugu biblioteka arduraduna. Eskolako irakaslea da eta ACEX programaren barruan dago.

Bere ordutegia eskolaz kanpokoetarako jardunera egokituta dauka, eta liburutegia eskola ordutegian ez ezik jantoki orduan eta arratsalde ere zabaltzen da. Erantsita doa proiektua.

Bibliotekako arduraduna batzorde pedagogikoan parte hartzen du, bere proposamen eta ekimenak azaltzeko eta eskolako informazioa jasotzeko.

EKONOMIA KUDEAKETARAKO PLANA

Ekonomia kudeaketarako denbora-markoak (ohiko urtea) eta ikastetxearen urteko plana (ikasturtea) ez datoz bat.

- **Finantza baliabideen banaketaren irizpideak**

Aurten ere iaz ezarritako irizpidea jarraituko dugu, hau da, eskolako beharrak lehenetasuna dauka zikloaren beharraren aurretik, eta sortzen diren neurrian aurre egingo diegu.

Inbertsio handienak kontzeptu hauetan izaten dira:

- Jantokia
- Instalazio tekniko, makinaria eta tresneriaren konponketak
- Bulegoko materiala
- Ikasmateriala
- Testu liburuak

Jantokia eta testu liburuak Eusko Jaurlaritzak egiten duen diru-sarrerekin nahikoa ez bada, eskolako dirua erabiliko da.

Ekonomia-kudeaketaren arduraduna/k

Idazkariak ekonomia-kudeaketa eramango du zuzendariak ikuskatuta.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

- **Sarrera iturriak**

Sarrera iturriak 2 dira:

Udaletxea: Diru kopuru bat ematen digute (3000€) gastu txikiak egiteko

Eskolaz kanpoko ekintzetarako, bibliotekarako, irteeretarako eta ekintza osagarrietarako urteko diru-laguntza bat ematen digute. 2016rako 3346.65€koa izan da (azaroan sartu digute).

Eusko Jaurlaritza:

Funtzionamendurako, hornikuntzarako, jantokirako eta proiektu desberdinak aurrera eramateko diru laguntzak.

Hornikuntzarako: 2015ean-18866.16€ / 2016an-19691.49€

Funtzionamendurako: 2015ean-4912€ / 2016an-5270€

Agenda 21: 2015ean-1038.71€ / 2016an-1124€

Nolega: 2015ean- 1488€ / 2016an-1461€

2017an oraindik ez dakigu zenbat jasoko dugun.

Kontrol sistemak, gastuen justifikazioa eta erregistroa

Gastuen justifikazioa ikasturtean zehar birritan egiten da ikastetxean OOGen aurkezten da bere onarpenerako. Gero Delegaziora bidaltzen da.

Gastuen aurreikuspena

Iaz arbel digitatez eta proiektorez hornitu ziren gelak. Aurten ez daukagu gastu zehatzik aurreikusita.

HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIO PLANA

Ikastetxearen inguruko informazioa mota askotakoa da, eta estamentu desberdinei zuzendua.. Ondoren azalduko dugu, alde batetik, familiei nola ematen zaien, eta, beste alde batetik, langileen artean nola egiten dugun.

Familiei dagokiena:

- 2 urteko eta 3 urteko berrien bilera ekainean: ongi etorria eta informazio eta orientazio orokorrak irailean ikasturtea hasteko.
- **Ikasturte hasierako bilerak**, irailean eta urrian: egutegia eta ordutegia, harrera prozesua, gelako jarduerak eta antolaketa, ebaluazio irizpideak, eskolako arauak. Ikasturte hasieran egiten dira, eta familiekin daukagun lehenengo kontaktua da. Bileraren gidoia irakasleek adostuta dago eta gela guztietan jarraitzen da, informazio bera ematen dela ziurtatzeko. Ikasturteko lehenengo ziklo bileran berrikusten da bileraren gidoia, datu berriren bat aipatu behar den jakiteko eta irakasle berriei aurkezteko. Ikasketa buruak koordinatzen du eta ziklo



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

koordinatzaileek gidatzen dute. Bilera hauetan familien iradokizunak ere jasotzen dira, gero zikloan komentatzen dira eta, behar izanez gero, batzorde pedagogikoan edo/eta zuzendaritzan tratatzen dira.

- **Web orria:** egutegia, informazio orokorra, langileak, zerbitzuak, araudia, ... IKT arduradunak hornitzen du zuzendaritzatik emandako informazioarekin. Badaude ere ziklo bakoitzeko atalak informazio zehatzagoa eta esperientziak aurkezteko erabiliko ditugunak. Badago aukera web orrian familiek beren iradokizunak aurkezteko edota informazio zehatzagoa eskatzeko. Bertan, urteko plana agertuko da. Sakelako telefonotik konektatzeko aplikazioa jarri dugu martxan. Aurten badugu asmoa web orrian siteak sortzeko.
- **Informazio orriak:** unean uneko informazio puntuala emateko (jantokia, irteerak, jaiak...) Orokorrak badira, zuzendaritzan prestatzen dira eta familiako banatzen dira. Zikloetakoak badira, zikloko koordinatzaileek edo irakasleek egiten dute eta umeko banatzen dira.
- **E-mail eta whatsapp bidezko informazioa:** gela bakoitzean familien kontaktu taldea sortuko da, informazioa bidaltzeko, papera aurrezteko asmoz.
- **OOG:** ikastetxearekin zerikusia duten gai guztien informazioa eta onarpena, hala behar izango balitz. Foro honetan familien eskaera, proposamen eta kezkak ere jasotzen dira. Urteko plana ere ezagutarazi eta onartuko da.
- **Guraso elkartea:** ez dago zehaztuta bilera egutegirik, baina, batez ere ikasturte hasieran eta amaieran, eskolaz kanpokoak edo elkartearen beharrak komentatzeko egiten dira bilerak zuzendaritza taldearekin. Urtean zehar harreman zuzena izaten du zuzendaritzarekin. Bere bulegoan urteko planaren ale bat utziko da nahi duten gurasoek irakur dezaten.
- **Banakako elkarrizketak:** ikasle bakoitzari buruzko informazio zehatza. Irakasle bakoitzak egiten du bai bere aldetik eskatuta bai familiak eskatuta. Elkarrizketa hauen akta jasotzen da oinarrizkoena aipatuz eta erabakiak islatuz. Akta hauek "Aktak" karpetan jasotzen dira.
- **Informazio liburutxoak:** web orrian agertzen denaren informazio laburtua: langileak, OOG, egutegia eta ordutegia, jantokiaren funtzionamendua, proiektuak, eskolaz kanpokoak, araudi orokorra eta euskararen inguruko aholkuak. Ikasturte hasieran banatzen da familiako, zuzendaritza taldeak prestatuta.

Irakasleei dagokiena:

- **Klaustro bilerak:** informazio orokorra emateko, proiektuak eta planak aurkeztu eta onartzeko, arazoan aurrean erabakiak hartzeko. Zuzendaritza taldeak deitzen du.
- **Batzorde pedagogikoa:** ikasketa buruak zuzentzen du, astean behin egiten da eta zikloentzako informazio interesgarria ematen da funtzionamendurekin zerikusia dutena tratatzeaz aparte. Ziklo bakoitzeko koordinatzaileek osatzen dute bibliotekako arduraduna eta aholkulariarekin batera. Funtzionamendurako erabakiak hartzen dira bertan eta proposamenak aurkeztu. Foro honetan informazioa zuzendaritzatik zikloetara, zikloetatik zuzendaritzara eta zikloen arteko informazioa trukutzen da. Urteko planari dagokionez, zikloei aurkeztuko zaie klaustroan gero onar dezagun.



C.E.P. MUKUSULUBA L.H.I.
Murillo, 20 48902 Barakaldo, BIZKAIA
Tel/Fax: 94 437 84 09 / 944383537



A21e
Barakaldo

muku@mukusulubalhi.net <http://www.mukusulubalhi.net>

- **Ziklo bilerak:** ziklo bakoitzeko irakasleek osatuta. Batzorde pedagogikoa tratatutakoa komentatzen da eta proposamenak edo erabakiak pedagogikora itzultzen dira.

Gainerako langileei dagokiena:

- **Jantokiko langileekin bilerak:** jantoki arduradunak egiten ditu, maizago ikasturte hasieran, zerbitzuaren funtzionamendua ezartzeko eta sor daitezkeen zailtasunak tratatzeko. Langileen proposamen eta iritziak jasotzen dira. Jantoki arduradunak zuzendaritzarekin komentatzen ditu.
- **Atezainekin:** zuzendaritzarekin egiten dira unean uneko hartu-emanak.

IUP-REN GARAPENAREN ETA IKASTETXEKO FUNTZIONAMENDUAREN JARRAIPENA

Zuzendaritza taldeak jarraipena egiten du ikasturtean zehar, eta idatzita gelditzen da ikasturte amaierako memorian.

OOG-REN ONARPEN AKTA

Behin irakurrita, Mukusuluba LHiko 2016-2017 ikasturterako Ikastetxeko Urteko Plana onartzen da, Eskola Kontseiluko 2016ko abenduaren 20ko aktan jasotzen den moduan.

Barakaldo, 2016ko abenduaren 20an

Lehendakaria



Idazkaria

Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorena
CEP MUKUSULUBA LHI